

FITXA METODOLOGIKOA
LURRALDE ETA HIRIGINTZA
JASANGARRITASUNAREN ADIERAZLEAK - LA
(090300)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Lurralde eta hirigintza jasangarritasunaren adierazleak - LA

Lurralde adierazleak lurralde- eta hirigintza- antolamenduko plangintza neurtzeko eta haren jarraipena egiteko erabiltzen dira. UDALPLAN-datuak erabiltzen dira. UDALPLAN lurralde antolamendu arloan laguntzeko sortutako Informazio Geografikoaren Sistemako tresna bat da. EAEko udalerrri guztietako plangintzaren inguruan indarrean dagoen informazioa jasotzen du, urtero-urtero; zehatz-mehatz, Egitura Orokorra eta Organikoa, eta Lurzoruaren Kalifikazioa eta Sailkapena.

Eragiketaren kodea.

090300 (3/2014 LEGEA, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa)

Erakunde arduraduna.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Beste erakunda partaide batzuk.

Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Foru aldundiak eta udalak

Gai-arloa.

Ingurugiroa

Maiztasuna.

Urtekoa

Eragiketa-mota.

Bilduma

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Lurralde-adierazleen gaineko informazio sintesia.

Helburuak

Lurraldearen funtzionamendua aztertzea, baita lurzoria okupatzeko moduetan gertatzen diren aldaketak eta horien ondorioak ere.

Aztertzeke aldagai nagusiak

- Egungo hiri-egituraren eta lurralde-egituraren egoeraren adierazleak. Lurzoruaren kalifikazioak eta lurralde-dentsitateak ongi adierazten dute egungo lurralde-eta hirigintza-eredua.
 - 1.- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa
 - 2.- Lurralde-dentsitatea: Guztizko eta hiri-dentsitatea.
- Gaur egungo garapenaren eta aurreikusitako garapenaren inpaktu-adierazleak. Plangintza orokorrean adierazitako etxebizitza-aurreikuspenek hiri- eta lurralde-errealitatean duten inpaktua adierazten dute: hiri-eredua, bizitegi-garapena eta etxebizitza-dentsitatea.
 - 3.- Hiri-eredua: Lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa lurzoru-motaren arabera.
 - 4.- Bizitegi-garapena: Aurreikusitako etxebizitza areagotzea.
 - 5.- Etxebizitza-dentsitatea: Etxebizitza dentsitatea lurzoru-motaren arabera.
- Artifizialtze-adierazleak. Hiri-orbanak azken urteetan izandako bilakaera adierazten dute eta, zehazki, lurzoruaren hirigintza-kalifikazioaren bilakaera.
 - 6.- Hirigintza-kalifikazioaren bilakaera.

Eremua

Populazio-eremua:

Aipatu berri den biztanle kopurua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek batuta osatzen dutena.

Udalerri, Eremu Funtzional, Eskualde edo Lurralde Historikoen eta Autonomia Erkidegoaren arabera informazioa biltzen da.

Lurralde-eremua:

Aintzat hartzen den geografia-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak dira. Laburpen-taulak taldekatuta daude Udalerri, Eremu Funtzional, Eskualde eta Lurralde Historikoen datu totalen arabera.

Denbora-eremua:

t urteari dagozkion datuak, t urteko urtarrila 1eko informazioa jasotzen dute. Datuak urtean behin argitaratzen dira.

Galde-sortak

Zabalkuntza

- [Internet: Lurralde-adieraleen Web aplikazioa. Udalplan. Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza](#)
- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa](#)
- <http://www.eustat.es>